

EZOHIKO  
DEIALDIA  
**KARRERA PROFESIONALA 2021**



*(2022.06.24an eguneratua)*

# NORK ESKA DEZAKE?

## Sendagileak FINKOAK eta EZ FINKOAK



### EGOERA 1

*Jardunean edo eszedentzian, genero indarkeriaren edo zerbitzu berezien ondorioz senideak zaintzeko, deialdian ezarritako epean.*



### EGOERA 2

*2019ko urtarrilaren 1ean jardunean egon, eta ondoren baja hartu duenak heriotzagatik, erretiroagatik edo ezintasun iraunkorragatik deialdian Ofizioz (interesdunak edo jaraunsleek parte hartu gabe) sartutakoek, edo Osasun Sistema Nazionaleko beste osasun-zerbitzu batean zerbitzu-eginkizunetan egoteagatik.*



### EGOERA 3

*Deialdia egiteko epean jardunean egon ez arren, 2022.06.27a aurreko 12 hilabeteetan gutxienez 6 hilabete Osakidetzan lan egin duten **langile ez-finkoak**.*

# ZER BALDINTZA BETE BEHAR DIRA?



## EGOERA 1ean dagoenak



*Deialdi hau egiteko epea, 2022.06.27a alegia, hasi aurreko azken hiru urteetan Osakidetzan gutxienez urte bete lan egin izana frogatu beharko du.*



## EGOERA 2an dagoenak



*Osakidetzak ofizioz emango du aukera deialdian parte hartzeko.*

## EGOERA BEREZIAK



**PLAZARIK EZ DUEN  
LANGILE FINKOAK** (destino gabe, eszedentzian, zerbitzu berezietakoak, etab.)



*Deialdi hau egiteko epea, hau da 2022.06.27a hasi aurreko hiru urteetan Osakidetzan zerbitzuak benetan egin dituela egiaztatu beharko du.*

**OSAKIDETZAN ENPLEGU  
FINKORIK EZ DUEN  
LANGILEAK**



*Gutxienez hiru urtez aritu beharko da Osakidetzan, deialdian parte hartzeko eskaria egiteko epea hasi aurreko bost urteetan, 2022.06.27a aurreko bost urteetan, alegia .*









# ZER ORDAINSARI-ONDORIO DITU?

Osagarri hau URTEA BUKATUTAKOAN ordainduko da


Beraz:

-  **2019ko urtarrilaren 1az geroztik**, baldin eta aitorpenerako egin beharreko zerbitzuak 2018ko abenduaren 31n bete badira.
-  **2020ko urtarrilaren 1etik aurrera**, lanean emandako urteak 2019ko abenduaren 31n bete badira,
-  **2021eko urtarrilaren 1az geroztik**, emandako zerbitzuak 2020ko abenduaren 31n bete badira.
-  **2022ko urtarrilaren 1etik aurrera**, zerbitzuan emandako urteak 2021eko abenduaren 31n bete badira.

**OHARRA:** Azken hiru kasuetan, 2019ko urtarrilaren 1etik aitzina, deioldi honetan onartutakoaren aurreko mailari dagokion zenbatekoa ordainduko da, baldin eta maila hori jasotzen ez bada.






# 2022. URTEKO ZENBATEKOAK

(deskonturik gabeko gordinak)



# ESKABIDEAK

## KONTUAN HARTZEKO ALDERDIAK

-  **OSO GARRANTZITSUA:** eskaera beti egin behar da, Osakidetzak ofizioz egiten duenean izan ezik.
-  Osakidetzako garapen profesionaleko aplikazio informatikoaren bidez, funtzionatzen hasten denean, 2022.06.27an, profesional bakoitzaren egiaztatagiriarekin.
-  Profesionalak antzintasun-baldintzak eta -urteak bete behar ditu, BAME urteak kenduta, garapen profesionaleko Maila lortzeko, 2021eko abenduaren 31 baino lehen, nahiz eta deialdiaren data 2022.06.27 den.
-  Egun horretatik aurrera, 20 egun balioduneko epea izango da eskaera egiteko, 2022.07.22ra arte, eta, hala badagokio, beharrezko dokumentazioa aurkezteko Osakidetza ez den beste administrazio Batean emandako zerbitzu gisa.
-  Epe hori bukatuta, behin-behineko zerrendak ebatzi eta argitaratu egingo dira (WEB), egon diren akatsen erreklamazioak egiteko. Ondoren, behin betiko zerrendak argitaratuko dira, EHAAn lortutako mailekin.

# OHAR INFORMATIBOA

*2021eko Karrera Profesionalaren  
Ezohiko Deialdiari buruzko informazio  
guztia, EHAAn kontsulta daiteke:*

*[https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/  
datos/2022/06/2202889e.shtml](https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/06/2202889e.shtml)*





EZOHIKO  
DEIALDIA  
**KARRERA PROFESIONALA 2021**

